

IKERTZAILE DOKTOREEN HOBKUNTZARAKO DOKTOREGO ONDOKO PROGRAMEN DEIALDIA

2024-2027

Laguntza berriak

[Weberako esteka](#)

Deialdiaren xedea:

1.- Agindu honen bidez, EAEko ezarpen-zentroetan hobekuntzarako programetan izango diren ikertzaile doktoreentzako eta 2024-2027 aldian atzerrira joango diren ikertzaile doktoreentzako laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia ezarri nahi dira. Deialdiak landuta ditu honako hauek:

a) 2024-2027 aldirako laguntza berriak ematea.

b) 2023-2024 ikasturtean bigarren aldiz berri ziren laguntzen hirugarren urtealdiko berritzea.

2.- Programaren helburua da ikertzaile-doktoreen ikerketa-hobekuntzako fasea bultzatzea.

UPV/EHUko KONPROMISO AGIRIA LORTZEKO PROZEDURA: (27.5 art.)

Eskatzaileek 2024ko uztailaren 01era arte (egun hori barne) izango dute dokumentu hauek aurkezteko posta elektronikoz (pre-postdoc.dgi@ehu.eus), mezuaren gaietan "POSDOC deialdia Eusko Jaurlaritzan" jarrita:

1. **NANaren kopia.**
2. **Doktore tituluaren kopia.**
3. **Datu pertsonalen fitxa.** Eredua eskuragarri dago Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean.
4. **UPV/EHUko ikertaldeko/proiektuko ikertzaile nagusiak sinatutako ziurtagiria** (Deialdiko 27.13 artikulua). Eredua eskuragarri dago Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean.

Data horretatik aurrera ez da konpromiso agiri gehiago egingo. Beranduago jasotzen diren eskaerak okerrak zuzentzeko prozeduraren ondorioz atendituko dira.

Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

Eskatzailea arduratuko da eskaera betetzeaz eta deialdiko oinarrietako 21. artikuluan

adierazitako bideetako edozein erabiliz erregistratzeaz. Horretarako epea **2024ko uztailaren 01ean (egun hori barne)** amaituko da.

Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):

- Euskal Autonomia Erkidegotik: 012
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 945 018000
- Atzerritik: 00 34 945 018000

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/diruz_laguntza/2024/posdoc-berriztapenak/web01-tramite/eu//